

XEDAPEN OROKORRAK

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

1277

343/2015 EBAZPENA, urtarrilaren 1ekoa, Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko zuzendari nagusiarena, Donostialdea Erakunde Sanitario Integratuari dagokion kontratazio-mahaia sortzeko dena.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzua ente publikoaren estatutuak ezartzen dituen azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuaren 20.4 artikulua arabera, Ente publikoaren Zuzendaritza Nagusiak, Administrazio Kontseiluak alde aurretik baimena eman ondoren, beharrezkotzat jotzen diren kontratazio-mahaia eratuko ditu, ente publikoaren erakundearen tamainaren arabera, eta kontratazio-organismoari kontratuak esleitzen laguntzeko, Sektore Publikoko Kontratuaren Legearen testu bategina onartzen duen azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuaren 320. artikulua xedatutako jarraibideak kontuan izanda.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzua ente publikoaren estatutuak ezartzen dituen azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuaren 20.4 artikulua hauxe ezartzen du:

«Sortuko diren kontratazio-mahaiek, nolahi ere, kide hauek izango dituzte:

a) Mahaiburua: dagokion erakundeko zuzendaria, kontratazio-organokoa ez dena.

b) Bi mahaikide, kontratazio-organismoak izendaturikoak.

c) Erakundeari atxikitako letraduen edo zuzenbidean lizentziatutako kudeaketa-teknikarien artean kontratazio-organismoak izendatutako kide-idazkari bat, mahaiko lege-aholkulari eta idazkari lanak egingo dituen, eta hitza eta botoa edukiko dituen.»

Osakidetza ente publikoaren Administrazio Kontseiluaren 2014ko abenduaren 30eko Erabakiaren bidez (2015eko urtarrilaren 26ko EHAA, 16. zk.), Gipuzkoako Osasun Barrutian Donostialdea Erakunde Sanitario Integratua sortzen da, Donostia Unibertsitate Ospitaleko zerbitzu-erakundeek eta horren erreferentziarako eremuaren lehen mailako arretako unitateek osatzen dutena.

Kontuan hartu behar da Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko estatutu sozialek ezarritako prozedura eta kontratazio administratiboaren plangintza- eta betearazte-beharrizan atzerazina, betiere Donostialdea Erakunde Sanitario Integratua bateratzea eta integrazioa gauzatzeko asmotan.

Aipatutako guztiagatik, zuzendaritza nagusi honek, legez emandako ahalmenez baliatuz, hau

EBAZTEN DU:

Donostia Unibertsitate Ospitaleko eta bere eremuko erreferentziarako lehen mailako arretako unitateen kontratazio-mahaia eratzeko aurreko ebazpen guztiak baliogabetzea, eta aurreko arretakotako duen beste mahaia bat eratzea, honela osatuko dena:

Mahaiburua:

Titularra: Ekonomia eta Finantzako zuzendaria

Ordezkoak:

Zerbitzu Orokorretako zuzendaria
Pertsonaleko zuzendaria
Pertsonaleko, Aurrekontuetako eta Kudeaketa-kontrolako zuzendariordea
Zuzendari medikoa
Erizaintzako zuzendaria

1. Mahaikidea:

Titularra: Teresa Rodríguez Arrondo

Ordezkoak:

Purificación Martínez Martínez
Virginia Pérez González
Rosa Cortabarría Guardé
Begoña Hernández de la Fuente

2. Mahaikidea:

Titularra: M.^a Carmen Corcuera Gamecho

Ordezkoak:

Pedro Carrión Valero
Mertxe Cabañas Izaguirre
Josune Elorriaga Rodríguez
Rosa Puente Mintegui

Mahaikidea Idazkaria:

Titularra: David Samprón López

Ordezkoak:

Victoria Velasco Alonso
Luis Javier Ronco Navarro
Ana Martínez Alonso
M.^a Begoña Antxustegi Bengoetxea

Herri Administrazioen Araubide Juridiko eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legeko 107., 114. eta hurrengo artikuluetan xedatutakoaren arabera (4/1999 Legeak aldatua), administrazio bidea amaitzen ez duen ebazpen honen aurka, interesdunek gora jotzeko errekurtsoa aurkez diezaioke Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluari, hilabeteko epean, ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2015eko urtarrilaren 1a.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusia,
JON JOSEBA ETXEBERRIA CRUZ.